

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2020/2021 ikasturtea

**IRAKASLEEN ETENGABEKO FORMAKUNTZARAKO
“HIZKUNTZA ETA GENEROA” ONLINE IKASTAROA**

Egilea: Garazi Martinez de Igidua Iglesias

Zuzendaria: Aintzane Etxebarria Lejarreta

Leioan, 2021eko maiatzaren 26an

AURKIBIDEA

Sarrera	4
1. Marko teorikoa	5
1.1. Sexua eta generoa	5
1.1.1. Genero-identitatea eta genero estereotipoak	6
1.2. Hizkuntza eta generoa.....	7
1.2.1. Euskararen erabilera sexista	7
1.3. Eskolaren erantzukizuna	10
1.4. Hezkidetzeta haur eta lehen hezkuntzetako ikasgeletan	10
1.4.1. Lehenengo esperientzia hezkidetzailleak	11
1.4.2. Eskola segregatutik eskola mistora	12
1.4.3. Erronka berriak: pedagogia feministak	13
1.5. Online ikastaroak etengabeko prestakuntzarako baliabide gisa.....	14
2. Proposamena: hizkuntza eta generoa online ikastaroa	16
2.1. Ezaugarriak	16
2.1.1. Online ikastaroa	16
2.1.2. Egitura	16
2.2. Ikastaroa sortzeko prozedura	18
2.3. Ikastaroan lantzen diren konpetentziak, ikaskuntza-helburuak eta edukiak	18
2.3.1. Konpetentziak	18
2.3.2. Ikaskuntza-helburuak	19
2.3.3. Edukiak	20
2.4. Erabiltzaileen profila eta erabiltzeko era	20
2.1. Zenbait erabiltzailerren balorazioa.....	20
3. Ondorioak eta etorkizunerako ildoak	21
4. Erreferentzia bibliografikoak	23

ERANSKINAK

I. eranskina. Ikastaroaren itxura	26
II. eranskina. “Hizkuntza eta generoan murgiltzen” irakurgaia	29
III. eranskina. “Hizkuntza sexistatik hizkuntza inklusibora” irakurgaia	41
IV. eranskina. “Androzentrismoaren aztarnak hezkuntzan” irakurgaia	50
V. eranskina. “Hitzik gabeko komunikazio” irakurgaia	58
VI. eranskina. Ikastaroko atazak	68
VII. eranskina. Ikastaroko edukiak	75
VIII. eranskina. Ikastaroko erabiltzaileen profila	76
IX. eranskina. Ikastaroko erabiltzaileen balorazioa	77

IRAKASLEEN ETENGABEKO FORMAKUNTZARAKO “HIZKUNTZA ETA GENEROA” ONLINE IKASTAROA

Garazi Martínez de Igidua Iglesias

UPV/EHU

Gradu Amaierako Lan honen helburua Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasgeletara hezkidetzeta hurbiltzea da, hizkuntza generoaren ikuspegitik aztertuz eta irakasleei ezagutzak eta baliabideak eskainiz, prestakuntza errazteko eta eskoletan hezkidetzeta-ekintzak abiarazteko. Hezkidetzari buruzko edukiak dituen online ikastaro baten proposamena aurkezten da, ikasleekin kontuan hartu beharreko gomendio espezifikoak ere eskaintzen dituena. Horrela, irakasleak profesional gisa hobetzea eta genero-desberdintasuna prebenitzeko ekintza eraldatzaileak praktikan jar ditzaten eskuratu nahi da.

Hezkidetzeta, generoa, irakasleen etengabeko formakuntza, hizkuntza inklusiboa

Este Trabajo de Fin de Grado tiene como objetivo acercar la coeducación a las aulas de Educación Infantil y Primaria, analizando la lengua desde el punto de vista del género y ofreciendo conocimientos y recursos al profesorado para facilitar la formación y la puesta en marcha de acciones coeducativas en las escuelas. Se presenta una propuesta basada en un curso online con contenidos relativos a la coeducación, además de introducir recomendaciones específicas a tener en cuenta con el alumnado. De esta manera, se intenta que los docentes mejoren como profesionales y que pongan en práctica acciones transformadoras que prevengan la desigualdad de género existente.

Coeducación, género, formación permanente del profesorado, lenguaje inclusivo

The purpose of this final degree project is to bring coeducation closer to Infant and Primary Education classrooms, by analysing the language from the point of view of gender and offering knowledge and resources to teachers in order to facilitate professional learning and the implementation of coeducational initiatives in schools. The proposal is an online course with coeducation-related content, and it also introduces specific recommendations to be considered with students. Therefore, the aim is to enable teachers to improve as professionals and to put into practice transformative actions that prevent existing gender inequality.

Coeducation, gender, teachers' continuous professional development, inclusive language

Sarrera

Euskal Estatistikaren Erakundeak (2021) zabaldutako azken datu estatistikoek, XXI. mendean oraindik ere, gure gizartean genero ezberdintasunak ugariak direla erakusten dute. Hasteko, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeek etxeko lanen %67,2 hartzen dute, eta gizonek, berriz, %32,8. Etxeko lanen banaketa ezberdin horren ondorioz, emakume okupatuak %44,6 baino ez dago pozik haien bikotekideak eskaintzen duen lankidetzarekin, ordea, gizon okupatuak %74,8 bikotekidearen parte-hartzearekin pozik dagoela adierazten du. Bestalde, lan-merkatuari erreparatzen badiogu, zuzendaritza-postua eskuratzeko aukerak nabarmen murrizten dira emakumeentzat, %34,23 probabilitatea 2019an. Gainera, datuen arabera, genero-desberdintasun horiek eremu publiko zein pribatu guztietara hedatzen dira.

Beraz, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren bosgarren helburua genero-berdintasuna lortzea dela kontuan hartuta, eta datuek oraindik lan ugari falta dela adierazten dutenez, Gradu Amaierako Lan honek, xede hori eskola-hezkuntzaren bidez lortzen lagundu nahi du. Horregatik, hezkidetzan sakondu nahi da, zehazki, hizkuntza hausnarketa kontuan hartuta. Hau da, hezkidetzak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasgeletara hurbildu nahi du lanak, hizkuntza generoaren ikuspuntutik aztertuz. Horretarako, ikerketa sakona egingo da, hainbat autoreren hitzak jasoz. Generoa zer den, euskara sexistak den, hezkidetzak zer den, hizkuntza inklusiboa erabiltzeko proposamenak zeintzuk diren, eta abar.

Halaber, atal teorikoan idatzitakoa kontuan hartuta, hezkidetzari buruzko edukiak eta baliabideak dituen online ikastaro batean oinarritutako proposamen bat aurkeztu da, irakasleek profesional gisa hobetu dezaten eta genero-desberdintasuna prebenitzeko ekintza eraldatzaileak praktikan jar ditzaten.

1. Marko teorikoa

1.1. Sexua eta generoa

Jaiotzen garen momentutik, ezaugarri biologikoei erreparatuz, sexu bat ezartzen zaigu, arra edo emea. Era berean, kategoria berri bat ere ezartzen zaigu, gizarte- eta kultura-erakuntzaren ondorio dena eta zer den femeninoa (emakumezkoa) eta maskulinoa (gizonezkoa) zehazten duena; honako honi generoa deritzo (Matilla, 2017). Ez da ez estatikoa, ez berezkoa; aitzitik, eraikuntza soziokultural bat da, denboran zehar aldatu dena eta alda daitekeena.

Sozialki, genero maskulinoa sexu arrari esleitzen zaio, eta genero femeninoa sexu emeari, baina kontzeptu horiek ez dira baliokideak. Sexua (biologikoa) eta generoa (kulturala) nahitaez loturik daudela defendatzen duen ereduari, sexu-genero sistema deritzo (Aguilar, 2008) eta honen arabera, gizartea zisgeneroz soilik osotarik dago. Ondorioz, gizon eta emakumeei bizitza programa ezberdinak ezartzen zaizkie eta ekintza ezberdinen bidez, sistema honen iraunkortasuna sustatzen da.

Hala ere, errealitatea anitza da eta transgeneroak eta transexualak ere existitzen dira; hau da, "beste generoarekin identifikatzen diren edo beste genero gisa bizi diren pertsonak, hormona-tratamendurik edo sexua berresleitzeko ebakuntzarik egin ez dutenak, eta (...) egin dutenak" (Butler, 2004, 20 or.), hurrenez hurren. Genero jakin bateko pertsonak beste genero bateko ezaugarriak edo beste genero gisa bizitzeko nahia adierazten duenean, DSM-IV¹ eskuliburuaren arabera, pertsonari "genero-disforia" diagnostikatzen zaio, nahasmendu psikologiko lez hartzen dena. Diagnostiko hau lortzea ezinbestekoa da sexua berresleitzeko, hormona-tratamendua jaso ahal izateko edota estatusaren lege-aldaketa egiteko. Hots, "patologizazio-prozesu hori jasatea sexua aldatzeko nahia asetzeko bide garrantzitsuenetako bat da". (Butler, 2004, 18 or.)

Dena den, sexualitatea are konplexuagoa eta anitzagoa da, izan ere, orain arte azaldutakoa sexu sistema bitarra izango litzateke, kategoria bakoitzeko bi errealitate erakusten dituenak. Sexu biologikoaren kasuan, emakumeak edo gizonak definitzen ditugunarekin bat ez datozen genitalak edo kromosomak dituzten pertsona intersexualak

¹ Amerikako Psikiatria Elkartearen Buruko nahasmenduen Diagnostiko eta Estatistika Eskuliburua da, eta buruko nahasmenduak diagnostikatzeko deskribapenak, sintomak eta bestelako irizpideak jasotzen ditu.

daude. Medikuntzak pertsona horiek bi errealitate konbentzionaletako bat bihurtu nahi izaten ditu; baina, hainbat mugimenduk sexu aldetik zehaztugabeak diren anatomiak dituzten jaioberriei haien gorputzak normalizatzeko kirurgia egiteari uko egin diote. Bestalde, generoari dagokionez, Matillaren (2017) esanetan, sistema bitarrak ez ditu genero binariotik at dauden errealitateak kontuan hartzen; hala nola: bigeneroak (aldi berean gizon eta emakume sentitzen direnak), demigeneroak (neurri batean soilik gizon edo emakume sentitzen direnak), ageneroak (euren burua ez dute ez gizon, ez emakumetzat identifikatzen), genero jariakorreko pertsonak (denbora batez gizon eta beste denbora batez emakume sentitzen direnak) edota hirugarren generoko pertsonak (haien burua ez gizon, ez emakume, ez agenero identifikatzen dutenak).

Hala ere, kasu honetan interesatzen dena da errealitate horiek guztiak, baita emakume izatea ere, diskriminatu egiten direla zis-, hetero- eta arraza zurikoa den gizonaren aldean; beraz, oraindik ere funtsezkoa dela genero-diskriminazioaren dimentsio hori aitortzea. Gainera, aipatu beharra dago guztiek aurkitu dituztela baliabide kontzeptual eta politiko garrantzitsuak feminismoan, mugimendu horiei erronkak planteatzen dizkiena eta aliatu garrantzitsu gisa funtzionatzen duena (Butler, 2004).

1.1.1. Genero-identitatea eta genero estereotipoak

Aipatu bezala, jaiotzen garen unetik sexu biologikoari lotutako genero bat dugu, eta, aldi berean, genero bakoitzari kulturak ezarritako itxaropen eta rol sozial jakin batzuk esleitzen zaizkio. Gizarteak, mutil edo neskontzako izateko modu ezberdinak espero ditu eta horri genero-estereotipoak deritzo. Honako multzo hauetan bana daitezke: "nortasun-bereizgarriak, rol-portaerak, lanbideak eta itxura fisikoa" (Deaux eta Lewis, 1984; Ortiz, Valencia eta Gil de Montes, 2006 aipatua). Genero-estereotipoek gizartean duten etengabeko ugalketak ez du uzten sexismoa edo genero-diskriminazioa ezabatzen, oharkabean eskuratzen baitira belaunaldiz belaunaldi (Ali, 2003).

Ikaskuntza sozialaren teoriak adierazten dute haurrek eredu bizi eta sinbolikoen behaketaren, imitazioaren eta interakzioaren bidez ikasten dutela nola erlazionatu beren ingurunearekin. Are gehiago, "sexu rolen sozializazioaren teoriak", ikasketa hori sari eta zigor sistema batek indartzen duela aldarrikatzen du. Teoriaren esanetan, haurrek arauen bidez ikasten dute gizonek eta emakumeek egin beharrekoa, eta arau horien arabera

jokatzen dute; nahiz eta onartzen duten muga edo arau horiek gainditzeko gaitasuna dutela ere. Alabaina, hurrek beren genero-identitatean segurtasuna bilatzen dutela adierazten dute adituek; beraz, sozialki ezarritako genero-ereduak indartzen dituztela, eta, bi talde bereizten laguntzen dutela: neskak eta mutilak (Skelton, 2001; Rodríguez eta Peñak, 2005 aipatua).

Edonola ere, eredu honek gehiegi sinplifikatzen du genero-identitatearen garapena; finkoa eta mugiezina dela defendatzen duelako, hala ere, besteez elkarrengin etengabe birstortzen da (Ali, 2003). Beraz, haurtzaroko eta nerabezaroko interakzio sozial gehienak eskolako testuinguruan gertatzen direnez, eskolak genero-estereotipoak ezabatzen lagundu beharko du, askotariko ereduak eskainiz kasu.

1.2. Hizkuntza eta generoa

Hizkuntza ezinbestekoa da pentsamendurako eta gizarte-harremanetarako (Holtgraves, 2002; Ortiz et al.-ek, 2006 aipatua); izan ere, oso egoera gutxitan ez dugu hizkuntza komunikaziorako bitarteko nagusi gisa erabiltzen. Hots, hizkuntzari esker ezagutzen dugu gure inguruko mundua. Hortaz, genero-estereotipoak eta sexismoa iraunarazi eta hedatu egiten dira, hizkuntzarekin egiten den erabilera sexistaren ondorioz.

Hala eta guztiz ere, Emakunderen ustetan (1988), inguratzen gaituen mundua hizkuntzaren bidez ezagutzen dugun bezala, horren bidez eraikitze eta eraldatzeko ere bagara gai. Alegia, hizkuntzak errealitatea islatzen eta sortzen du. Beste era batera esanda, gizartea aldatzen doan heinean, hizkuntza ere aldatu egiten da, baina alderantzizko bidea ere posible da, hizkuntza moldatzea edo aldatzea gizartea eraldatzeko. Honenbestez, “hizkuntzak errealitate soziala eraikitzen badu eta aldaketarako eragileztat hartzen bada” (Ortiz et al., 2006, 68 or.), euskarak genero-ezberdintasunak iraunaraztean duen papera aztertu beharko da.

1.2.1. Euskararen erabilera sexista

Juanenaren hitzak jasoz (1991), Garcíak (1977) hizkuntz ezberdinen kutsu sexista neurtu zuen bere ikerketetan eta jasotakoaren arabera, euskarak %5eko zama sexista baino ez zuen, frantsesaren %40ren, gaztelaniaren %80ren eta ingelesaren %15ren aldean.

Ikerketako datu hauek eskuratzeko, aldagai hauek aztertu zituzten: “genero gramatikalaren eta sexuen arteko erlazioa; maskulinoaren erabilpena genero komunaren balioaz; aditzaren eta izenordeen sexualizazioa; eta, erro maskulinoetik hitz komunak egitea” (Juanena, 1991, 109 or.). Hori zela medio, autoreak euskara sexista ez zela ondorioztatu zuen.

Dena den, Azkaratek (1993), Garcíaen hitzak ukatuz, *hizkuntza sexista* ez izan arren, *hizkuntzaren erabilera sexistaz* hitz egin genezakeela baieztatu zuen. Hau da, Euskal Herriko gizarteak euskaraz egiten duen erabilera desegokia plazaratu zuen eta harrezkerotik, hainbat ikerketek desoreka hauek bistaratu dituzte:

Genero kutsadura

Euskarak berez genero bereizketarik egiten ez duen arren, gizarteak izen neutroak genero bakarrarekin identifikatzeko joera du; esaterako, zirujaua gizonekin eta garbitzailea emakumeekin (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011). Horrez gain, azkenengo urteetan sexismoa ugaldu duten bi egitura berri agertu dira. Alde batetik, historikoki zubereraz bakarrik erabili izan den *-sa* atzizkia, baina euskara batuan zabaltzen ari dena (Azkarate, 1993): *alkatesa, bertsolarisa, idazkarisa, aktorea...* Inoiz generorik izan ez duten *-ari* (dantzari) eta *-le* (idazle) erator-atzizkiei, genero maskulinoa ezarri zaie eta hortaz, dagokien femeninoa eratzeko beharra sortu da. *-sa* atzizkiaren ordeztasun, gehienetan testuinguruaren arabera jakin dezakegu generoa. Beste alde batetik, euskaraz ere sexuaren zehazpen desorekatua nabarmena da (Barquín, 2008), hau da, jaun, andre, gizon, emakume... hitzak ditugu generoa zehazteko, baina inplizituki sexismorik agertu ez dadin, genero guztietarako zehaztu beharko da: *gizon medikua, emakume medikua...*

Maskulino orokortzailea

Gaztelaniaren eraginez, gizonetakoak eta emakumeetakoak osotzen dituzten taldeak izendatzeko, maskulino orokortzailea erabiltzen da, baina euskararen kasuan, ez da egia honek genero guztiak barnean hartzen dituenik (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011). Sarritan “*gizon*”, “*gizonezko*” eta “*gizaseme*” hitzak erabiltzen dira emakumeak eta gizonezkoak izendatzeko, emakumea ikusezin bihurtuz. Halaber, Azkarateren (1993) esanetan, “*giz-*” eta “*anai-*” oinarriekin ere berdina gertatzen da; hortaz, *jendarte* (= gizarte) eta *haurrideak* (= anaiak) erabiltzea komeni da.

Bada euskaraz beste egitura bat emakumeak gutxiesten dituen: “*izena + gizon*” hitz elkartuak: *elizgizon, gudagizon, legegizon...* Zuzenago litzateke izenari *-ari* atzizkia gehitzea: *gudari, legelari...* eta ezinezkoa izatekotan “gizon / emakume” erabiltzea.

Horrez gain, plurala erabiltzean edota generoa ez dakigunean, femenino eta maskulinoaren elkarrekin erabili behar da: *seme-alabak, neska-mutilak, aita-amak - gurasoak-, jaun-andreak...* Alegia, ohikoa bihurtu da betiko bikote-izenak alde batera uztea eta pluralerako gizonetzkoak hartzea plural-marka erantsiz: “**Semerik izan nahi duzu?*” erabiltzea “*Seme-alabarik / umerik izan nahi duzu?*” esaldiaren ordeztuz; edo, “**Nire aitak datoz bila*”, “*Nire aita-amak / gurasoak datoz bila*” -ren ordeztuz.

Hitanoaren erabilera desagokoa

Ildo beretik, gaur egun egiten den hitanoaren erabilerekin ere, emakumea isilpean uzten da. Aditzetan sexu-marka adierazten duen tratamendua da; gizonetzkoekin *toka* eta emakumezkoekin *noka* erabiltzea eskatzen duena. Alabaina, sarritan taldea mistoa denean atzizki maskulinoen erabilera desagokoa egiten da. Kasu hauetan, *zuka* edo inperatiboa erabili beharko litzateke (Barquín, 2008).

Femeninoaren erabilera peioratiboa

Emakumeekiko mespretxua hitz, atsotitz, esaera zahar eta abarretan agertzen da (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011). Gehienak peioratiboak dira eta gizonentzat, ez dira existitzen edota ez dira erabiltzen, 1. Taulan ikusi daitekeenez (Apodaka, M. eta Apodaka, E.; d.g.; 18. or.):

Hitzak	Esaerak
Gizalege (begirunea) / Emalege (hilekoa)	“Horiek emakumeen gauzak dira”
Gizabakar (norbanakoa) / Emabakar (monogamoa)	“Txakurrari hezurra eta emazteari gezurra”
Gizatxar (gaiztoa) / Ematxar (prostituta)	

1. Taula: Hitz eta esaera peioratiboak

Sexuaren araberako trataera ezberdinak

Euskaraz ere, badira egoera ugari non emakumeen eta gizonen trataera ezberdina egiten den, genero-estereotipoak iraunaraziz; hala nola (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011; Emakunde, 1988; Apodaka, M. eta Apodaka, E.; d.g.):

- Emakumeen egoera zibila adierazteko “*Andre*” edo “*Andere/Andereño*” erabiltzea, “*Gizon*” edo “*Jaun*” egoera zibiletik at ere erabiltzen direnean.
- Emakume izena erabiltzea beharrezkoa ez den genero-zehazpena egiteko: **Futbolariak greba egin dute, emakumeek ere bai.*
- Hainbat testuingurutan, dependentzia harremanak adierazten duten formak erabiltzea: “*-(r)en emaztea*”, “*-(r)en andrea*” eta “*-ren alarguna*”. Izan ere, gizonen nagusitasuna eta emakumeen dependentzia azpimarratzen du.
- Emakumea itxura fisikoarekin eta arlo pribatuarekin lotzea eta gizonak aldiz, gai intelektualekin eta bizitza publikoarekin.
- Izen-abizenetan tratamendu berdina ez erabiltzea. Sarritan, gizonezkoa denean abizena baino ez da jartzen eta emakumezkoa denean izen-abizena.

1.3. Eskolaren erantzukizuna

Aipatutako guztiak eragin zuzena du heziketan; identitatearen eraiketan batik bat. Hori dela eta, STEILASen (2015) arabera, hezkuntza sistemak aldaketarako eragile aktiboa izan behar du eta horretarako, aintzat hartu beharko dira eskolako jardunean parte hartzen duten aldagai guztiak, besteak beste, uneko hizkuntzaren erabilera, materialak, edukiak, espazioak, eta abar. Hau da, klasea hasi aurretik, bertan erabiliko den materiala gainbegiratu beharko da, hizkerari, estereotipoei, irudiei, sinboloei, espazioei eta abarrei erreparatuz eta gogoeta eginez (Álvarez, 2007).

Gainera, hausnarketa prozesu horretan zehar, ezinbestekoa da curriculum ezkutuz ez ahaztea, klasean era ez intenzionalean irakasten dena baita; alegia, berenberegiz planifikatu ez dena. Ikasleak honen transmisioaz ohartzen ez diren arren, ikasketa hauek inkontzienteki bereganatzen dituzte (Ugarte, Otaduy eta Irigoyen, 2020).

1.4. Hezkidetzaren haur eta lehen hezkuntzetako ikasgeletan

Euskaltzaindiaren hiztegian (d.b.), hezkidetzaren horrela definitzen da: “generotik at egiten den pertsonen hezkuntza da, gizonari eta emakumei egokitutako rol, balio, portaerak eta abar kontuan hartu gabe hezteak”. Gizarteratze prozesuan, “mutil” ala “neska” lez klasifikatuko gaituzten estereotipoak ugariak dira: jostailu motak, sentimenduak, koloreak, jarrerak, ezaugarriak, arropak, eta abar (Ugarte et al., 2020).

Alabaina, askotan, gure interesak ez datoz bat gizarte patriarkalak duen pentsaerarekin. Beraz, gure nortasuna askatasunez adierazteko beste bide batzuk hartzea erabakitzen dugu. Iglesias eta Sánchezen (2017) arabera, hezkidetzak askatasun hori bermatzeko balio digu; gizarteratze-prozesua genero estereotipoetatik at bizitzeko. Beraz, era berean, gaur egun emakumeak duen gutxiagotasun egoerarekin amaitzeko tresna da.

Nolanahi ere, hezkidetzak kontzeptua duela denbora gutxi samar agertu zen. Honek gizonen zein emakumeen hezkuntza-sistamarako berdintasuna oztopatzen duten metodologia tradizionalak birplanteatu ditu. Beraz, hezkidetzak gaur egun ulertzen dugun bezala ulertzeko, atzera begiratu eta hasieratik gaur egunera arteko ibilbidea ezagutu behar da. Jarraian, Espainiako historian hezkidetzan izandako aurrerapenei buruzko informazioa jasotzen duen laburpena ageri da.

1.4.1. Lehenengo esperientzia hezkidetzailleak

Pedagogian doktoratuak diren Bejarano, Martínez eta Blancok (2019) diotenez, Espainian, XX. mendearen hasieran esperientzia hezkidetzailleak ezarri ziren eskola batzuetan. Alabaina, II. errepublikara arte ez zen maila nazionalen hezkuntza hezkidetzaillea bilakatzearen inguruan hitz egin. Garai honetan hasi ziren lehenengo proposamenak, eta emakumeentzako hezkuntza-espazioak ugaritzen hasi ziren. Esaterako, 1918. urtean Luzuriagak idatzitako hezkuntza programaren 9. puntuak, honakoa jasotzen zuen: “Sexu bateko eta besteko ikasleen baterako hezkuntzaren aurkako arrazoi psikologikorik ez dagoenez, eta, aldiz, heziketa hori gomendatzen duten gizarte-arrazoi garrantzitsuak daudenez, erakunde guztietan ezarriko da sexuen hezkidetzak [...]” (39 or.).

Hala ere, 1931ko Konstituzioan eta 1932ko *Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako Oinarriak* legearen zirriborroan ez zen hezkuntza hezkidetzaillearen printzipioa jaso. Aldiz, bigarren honek hezkidetzaren kutsuak zituen: laugarren oinarriak mutil eta nesken eskolak, hau da, genero segregazioa sustatzen zuten eskolak desagertzea aldarrikatzen zuen; eta, hogeigarren oinarriak, irakasle guztien lana berdina izan behar duela, generoaren araberrako ezberdintasunik gabe eta helburua ikasleak hezteak izanik.

Geroago, beste aurrerakuntza batzuk egin ziren arren, Guda Zibilaren osteko Francoren diktadorearekin batera, aurrerakuntza guztiak desagertu egin ziren, emakumea esparru

publikotik berriz ere urrunduz. Dena den, diktaturaren azkeneko etapan eta Trantsizioan, iraultza feminista berpiztu zen, genero-berdintasunean lorpen handiak eskuratuz (Bejarano et al., 2019).

1.4.2. Eskola segregatutik eskola mistora

70eko hamarkadan, eskola-erakundeetan generoaren eraikuntza aztertzeke interesa piztu zuen feminismoak (Hammersley, 2001; Rodríguez eta Peñak, 2005 aipatua). Normalean, neska-mutilak ikastetxe edo gela ezberdinetan banatzen ziren, curriculum-helburu ezberdinak ezarriz eta genero-bereizketa sustatuz. Biologikoki emakumeak eta gizonak ezberdinak zirela argudiatuz egiten zen bereizketa, eta, gizarte-bizitzan ezin zituztela rol berberak bete ondorioztatzen zuten; horrenbestez, eskolek ikasle bakoitza prestatu behar zuten generoaren araberako etorkizuneko espektatibetarako (Rodríguez eta Peña, 2005). Gizonak unibertsitate- eta lan-munduan trebatzen ziren (eremu publikoa), eta emakumeak, berriz, emazte- eta ama-lanetan aritzeko prestatzen ziren (eremu pribatua), goi-mailako ikasketak egiteko paradarik gabe.

Hori dela medio, hezkuntza arloan, 1970eko Lege Orokorra sortu zen, zeinak hezkidetzaren arloan hobekuntzak bildu zituen, neskek eta emakumeek jasotzen zuten curriculum sexista baztertu eta eskola mistoa sustatu zuelako. Gainera, garai horretan, generoak ikasleen artean eragiten zituen aldeak aztertzen hasi ziren, eta Rodríguez eta Peñaren (2005) azterketen emaitzek, hezkuntzan aldaketa handiak egon arren, mutilek eskolaren onurak eskuratzeko aukera zutela, eta neskek, aldiz, haien ikaskideekin alderatuta aukera-desberdintasun handia zutela adierazi zuten. Hori gutxi balitz, eskola "genero maskulinoaren pribilegioak indartzen zituen instantzia sozializatzailetzat" jo zen (30. or.); bada, generoari buruzko desberdintasun formalak desagertu baziren ere (aldaketa handien artean eskola mistoaren agerpena), oraindik, estereotipoak indartzen zituzten ekintza inplizitu ugari zeuden. Cruzen (2004) hitzetan: "eskola mistoak, ezberdintasunik sortzen ez zuen arren, legitimatzen laguntzen zuen; ikasleei tradizioz gizonentzat gordetako jakintzak eskuratzea erraztu zien emakumeei, irakaskuntza segregatuaren curriculum ezkutuaren zilegitasuna zalantzan jarri gabe." (105 or.).

Berrikiago, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak [LOGSE] hezkidetzeta-metodologiak ezartzea beharrezkoa zela aldarrikatu zuen, aitzitik, ez zen hezkidetzeta-eredu ofizialik

ezarri, zeharkako gaitzat hartu baitzen. Hortik aurrera, demokrazian zehar, neurri handiago edo txikiago batean, hezkidetzaren erdiesten laguntzen duten lege eta planak sortu dira. Garrantzitsua da azken urteotan desberdintasunari aurre egiteko sortu diren plan estrategikoak aipatzea, adibidez, EAEko hezkuntza-sistamarako I. eta II. hezkidetzaren plana. Oro har, Eusko Jaurlaritzaren (2016) arabera, hezkidetzaren inguruan dagoen legeriak bost alderdi orokor lantzen ditu:

1. “Hezkidetzaren ereduaren sustatzea eta genero-ikuspegia curriculumean integratzea.
2. Curriculumaren edukia.
3. Hezkidetzaren material didaktikoak.
4. Hezkidetzaren alorreko trebakuntza.
5. Genero-indarkeria antzematea eta horri aurre egitea.” (11 or.)

1.4.3. Erronka berriak: pedagogia feministak

Historian zehar, pedagogo eta irakasle anitzek, printzipio feministetatik abiatuta, hezkidetzarekin den hezkuntzan pentsatzearen garrantzia adierazi dute (Maceira, 2006). Bestalde, hezkuntza zein gizarte arloan dauden genero ezberdintasunak erakusten dituzten euskarri teoriko eta praktikoak ezagutarazi dituzte; horrela, emakumeek eta gizonek gizartearen eraikuntzan bete duten tokiaz jabetzeko.

Hori horrela izanik, zenbait pedagogia feminista sortu izan dira, zeinen oinarria genero-berdintasunaren printzipioa eskuratzen laguntzen duten proposamen hezkidetzarekin egitea den. Maceiraren (2006) esanetan, pedagogia hauei esker, historikoki ezagutzaren arloan emakumeen errekonozimendua galarazi duten elementuak identifikatu dira eta ondorioz, alternatiba ezberdinak proposatu dira.

Orobat, feminismoak, genero-berdintasunak ekiditeko asmoz, gizarteak betaurreko moreak janztea proposatzen du (Ugarte et al., 2020). Metafora bat da. Sozializazio-prozesuko inposaketak era kontzientean identifikatzea eta proposamen askeagoen hausnarketa bideratzea helburu duen mekanismoa da. Izan ere, genero-sexu estereotipoak gainditzen ez diren heinean, diskriminazioak jarraitu egingo du, baita genero berdintasunak ere, emakumeak ahulduz (Cruz, 2004). Horregatik, hezkidetzarekin den eskola eraikitzeko, hainbat baldintza bete beharko dira:

- "Tradizioz gizonen eta emakumeenak kontsideratuak izan diren jarrera eta balioak batera egotea dakar, edozein sexutako pertsonen onar ditzaten.
- Nortasuna genero-oztoporik gabe erabat garatzera bideratuta dago, emakumearen kultura- zein ideologia-sexismoa eta desberdintasun soziala zuzenduz.
- Ez du ukatzen maskulinoa eta femeninoa zehazten duten ezaugarriak daudela (...), baina ez era dogmatiko eta aprioristikoan irakasteko.
- Munduaren eta emakumeen esperientziaren hezkuntza integrala eta integratzailea suposatzen du.
- Gizartean nagusi diren ezagutza-moduak zalantzan jartzen ditu.
- Pertsonen arteko komunikaziora irekitako hizkuntza praktika anitzak eskatzen ditu.
- Ikasleen afektibitatearen eta sexualitatearen bilakaera-prozesuei buruzko arreta eskatzen du." (Alario eta Anguita, 1999, 40-41 or.).

1.5. Online ikastaroak etengabeko prestakuntzarako baliabide gisa

Aurrekoaren ildo beretik, eskola hezkidetzaila lortzeko lehen urratsetariko bat, hezkidetzaren arloan trebatutako eta hobetu nahi ditugun arlo horietan espezializatutako irakasleak edukitzea da.

Irakasleen formakuntzari dagokionez, hasierako prestakuntza unibertsitate-graduan eskuratzen da, hala ere, prestakuntzak ez du hor amaitu behar, irakasleek etengabe eguneratu behar baitituzte beren ezagutzak sortzen ari diren hezkuntza-berrikuntzetara egokitzeke. Vezubek (2013) irakasleen formakuntzaren inguruan eginiko ikerketaren arabera, irakasleen hasierako formakuntza oso oinarritzkoa eta eskasa dela azpimarratu zuten, are gehiago kontuan hartzen badugu edukiak berritzeko curriculumean aldaketa garrantzitsuak egiten ari diren unea dela. Beraz, etengabeko prestakuntza ez da aukera bat, behar bat bazik, irakaslearen zereginak eta praktikak atzeratuta gera ez daitezen (Atiaja eta García, 2020). Konpromiso etiko eta profesionala da, egungo errealitatearekin kontaktua mantendu ahal izateko.

Hori dela medio, ikastaro eta mintegiak sarri jarri dira abian, baina badirudi ez dela nahikoa izan (Atiaja eta García, 2020); batez ere, denborak, joan-etorriek eta kostuek mugatzen dituztelako. Horren aurrean, teknologia berriek eta, zehazki, online ikastaroek irtenbide posible bat aurkeztu dute.

Teknologia digitalek irakasle gaituen kopurua handitzea eta material baliotsuak zirkulazioan jartzea ahalbidetzen dute. Vezuben arabera (2013), "parte-hartzaileen artean baliabideen, esperientzien eta iritzien truke handiagoa sortzen dute, ikastaro

tradizionalen ezaugarri zen interakzio bertikala hautsiz" (103 or.). Hots, urrutiko hezkuntzak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eskema tradizionalak hausten ditu. Ez dago harreman zuzenik denbora errealean irakasleak ikaslearen ikaskuntza-prozesua zuzentzeko; horregatik, prozesu malguagoa bihurtzen da; izan ere, ez dago leku fisiko edo denbora jakin baten beharrik. Hala ere, erabiltzailearen independentzia eta autorregulazio handiagoa eskatzen dute (Juca, 2016). Gainera, *e-learning* plataformek aukera ematen dute edukia igotzeko, jarduerak egiteko, foroetan eztabaidatzeko, besteak beste. Alegia, online ikastaroek ez dituzte profesionalen etengabeko formakuntzarako beste formatu batzuek dituzten mugak; joan-etorriak kasu.

Bestalde, jada esan bezala, ikasgelako errealitateak aldakorrak dira, eta horregatik sortzen da etengabe eguneratzeko beharra. Ayuste, Rodriguez, Salvador eta Valdivielsoren (2016) arabera, azken 20 urteetan Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen profila dibertsifikatu egin da. Ikastetxeak hainbat nazionalitatetako, kulturatako, gaitasunetako, trebetasunetako, erlijiotako, sexu-orientaziotako, genero-identitatetako eta abarretako haurrek eta gazteek osatzen dituzte. Desberdintasun horiek guztiek aukera berdintasuna bermatzen duten erantzunak ematera behartzen gaituzte.

Ortega eta Pagèsen arabera (2018), Espainiak berdintasun formala lortu du genero arloan, baina oraindik ere oso urrun dago benetako berdintasuna lortzetik. Emakumeek jasaten dituzten estereotipo sexistek eta diskriminazioek ez dute laguntzen berdintasunezko gizartea lortzen. Are gehiago, "diskurtso-prozesuak erabakigarriak direla uste da, nola pentsatzen, sentitzen, jarduten, desiratzen eta hitz egiten dugun eraikitzen dutelako, eta guretzat normala, zuzena eta desiragarria dena osatzen dutelako" (Ayuso et al., 2016, 135 or.). Hori dela eta, irakasleen etengabeko prestakuntzaren bidez, irakasleak generoaren arloan informatuta eta jantzia geratzea lortu behar da, eskolaren neutraltasuna zalantzan jar dezan eta bere diskurtso- eta hezkuntza-praktika propioak azter ditzan.

Laburbilduz, irakasleek beren etengabeko prestakuntzan, besteak beste, generoaren arloko prestakuntza jaso behar dute, eta online ikastaroak dira horretarako formaturik eraginkorrenak, beren ezaugarri bereziak direla eta.

2. Proposamena: hizkuntza eta generoa online ikastaroa

Irakasleei zuzendutako hizkuntzaren eta generoaren arteko erlazioari buruzko online ikastaroa da; zeren, gai bera lantzen duten ikastaroak dauden arren, ez dira irakasleei berariaz zuzendutakoak. Ikastaro honetan, gaian adituak diren hainbat egileren informazio teorikoa biltzen da, eta kontzeptu horiek ikasgelan aplikatzeko gomendioak ematen dira. Izan ere, jada lanean dauden irakasleen artean gogoeta sustatu nahi da, etengabeko prestakuntza sustatu nahi delako. Hala ere, edozein prestakuntza-etapan egin daitekeen ikastaroa da, hasierako prestakuntza (unibertsitate-ikasketak) barne.

2.1. Ezaugarriak

2.1.1. Online ikastaroa²

Moodle plataformaren bidezko online ikastaroa da. Helburua irakasleen etengabeko prestakuntzan ekarpen berria egitea da. Horregatik, proposamena egin aurreko ikerketan, aurrez aurreko formatuak, mintegiak kasu, lanean ari diren langileentzat egokiak ez direla ohartuta, formatu ez presentziala hautatzea erabaki zen. Aurrez aurreko ikastaroek denbora, desplazamendu eta kostuen inbertsioa eskatzen dute eta sarritan, irakasleek honakoei uko egiten diote. Ordea, gailu elektronikoei esker Internetarako etengabeko sarbidea dugu eta hori abantaila handia da *e-learning* ikaskuntzarako. Online formatuak aukera ematen die irakasleei ikastaroa zein unetan, zenbat denboraz, zein gailuren bidez eta nondik egin nahi duten aukeratzeko. Beraz, eskaintza erakargarriagoa eta praktikoagoa da.

2.1.2. Egitura

Ikastaroaren eduki teorikoak lau gairen inguruan egituratzen dira eta modu ordenatuan egin behar dira. Dena den, erabiltzaileak eduki guztiak hasieratik izango ditu eskura, ikasleak berak antola dezan bere ikasteko erritmoa. Gai bakoitzak hainbat elementu ditu. Hasteko, bloke bakoitzak hamar orri inguruko irakurketa bat du (pdf), kontzeptu teorikoak eta proposamen espezifikoak biltzen dituena. Gainera, gaia irakurri ondoren, horri buruzko hausnarketa sustatzea helburu duen entrega-jarduera bat proposatzen da.

² Ikusi ikastaroaren itxura I. eranskinean

Bestalde, bloke bakoitzean partaidetza foroa dago, erabiltzaileak zalantzak argitzeko, iruzkinak egiteko, eztabaidak sortzeko edo gai-zerrendan ez dagoen informazio gehigarria gehitzeko erabil dezakeena.

Hizkuntzaren eta generoaren inguruko ikerketak oso zabalak dira. Hori dela eta, errealitate horrekin lehen kontaktua izateko gaitegi egokiena hautatu da. Aipatu bezala, helburua gogoeta sustatzea zein beharrezkoenak diren kontzeptuak ikastea da eta ez genero-arloko adituak sortzea, horretarako beste ikastaro batzuk baitaude. Alabaina, elkarlaneko ikaskuntzak berebiziko garrantzia duenez, erabiltzaileei lankidetzarako eta interkomunikaziorako abagunea ematen dien tresna bat eman zaie, foruak alegia.

Edukien banaketara itzuliz, hauek dira zehaztutako blokeak:

1. Hizkuntza eta generoan murgiltzen (II. eranskina)

Lehen bloke hau generoaren gaiari buruzko sarrera da. Ikasgaiarekin lotutako zenbait kontzeptu garrantzitsu lantzen dira, hurrengo blokeak hobeto ulertzeko asmoarekin. Gainera, eskolari eta generoari buruzko laburpen historiko txikia agertzen da, baita indarrean dagoen legeak zehazten duena ere.

2. Hizkuntza sexistatik hizkuntza inklusibora (III. eranskina)

Bigarren blokean, ikastaroaren izenburuak berak duen hizkuntzaren zatia lantzen da. Euskal Herriko eskoletan hizkuntza bakarra erabiltzen ez bada ere, ikastaroan euskararen azterketa baino ez da egiten, hizkuntza nagusia delako eta ikastaroa bera euskaraz delako. Atal honetan hizkuntza sexista den edo hizkuntzaren erabilera sexista egiten dugun lantzen da. Izan ere, bigarren paradigma horrek maila pertsonalean aldaketak gauzatzeko aukera bideragarriagoa ematen digu. Horregatik, blokearen ardatz nagusia eskolan erabiltzen dugun hizkuntzarekin lotura estua duten adibideak jorratzea da, generoari dagokionez inklusiboagoak izan daitezen.

3. Androzentrismoaren aztarnak hezkuntzan (IV. eranskina)

Bloke honetan androzentrismoa zer den azaltzen da. Ondoren, eskolan erabili ohi diren hezkuntza-materialak androzentrikoak edo sexistak diren aztertzen da; abestiak eta ipuinak azpimarratuz. Gainera, beste egile batzuek sortutako proposamenak ere eskaintzen dira.

4. Hitzik gabeko komunikazioa (V. eranskina)

Azken blokean, hitzik gabeko hizkuntza lantzen da. Izan ere, curriculum ezkutuaren parte da, hau da, ikasleek inkontzienteki barneratzen dutena eta guk gure curriculum-planean diseinatu ez duguna. Alderdi hori lantzeko, arropak, irudiak, eskoletan aurki ditzakegun ikonoak, publizitatea eta abar aztertzen dira.

Horrez gain, esan bezala, gai bakoitzak gogoeta-ataza bat du (VI. eranskina).

2.2. Ikastaroa sortzeko prozedura

Lehenik eta behin, gaiaren inguruko informazioa bildu zen. Horretarako, autore ezberdinen artikulak, liburuak, hezkuntza-aldizkariak, eta abar erabili ziren. Ondoren, oinarritzko maila duen ikastaro batentzako ikaskuntza-helburu proposenak definitu ziren eta xede horiek eskuratzeko beharrezko edukiak zehaztu ziren. Gainontzeko informazioa alde batera utzi zen, nahiz eta irakurgaietan horietan sakontzeko hainbat proposamen egiten diren, esaterako, zenbait emakume pedagogo feministen ekarpenak. Halaber, edukiak definituta zeudela, horien erlazioak azterturik, edukiak gai edo blokeetan sailkatu ziren.

Aurreko ikerketa lana bukatuta, irakurgaiak idatzi ziren eta bitartean, horiek erakargarriagoak izateko bideoak, albisteak, audioak, padlet-ak... bilatu nahiz sortu egin ziren. Gainera, bloke bakoitzeko ikaskuntza-helburuak lortzen laguntzeko eskolako errealitatearekin zerikusia duen hausnarketa jarduerak pentsatu eta sortu ziren. Azkenik, Moodle plataforma eratu zen eta materialak bertan erantsi ziren.

2.3. Ikastaroan lantzen diren kompetentziak, ikaskuntza-helburuak eta edukiak.

Ikastaroko kompetentziak, ikaskuntza-helburuak eta edukiak zehazteko, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari eta Heziberri 2020 marko pedagogikoari erreparatuz zehaztu dira. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren (2015), 2030 agendako 5. helburua, “genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea” da.

2.3.1. Kompetentziak

Ikastaroaren bitartez, erabiltzaileak hiru kompetentzia nagusi garatu beharko ditu:

- Gizartean genero-desberdintasunak eragiten dituzten elementuak identifikatzea: hainbat gizarte-eremutan, bereziki eskolan, edozein genero-diskriminazio mota antzemateko eta prebentzio- nahiz ebazpen-mekanismoak abian jartzeko gai izatea.
- Norberaren hizkuntz-jarduerak gizartean genero-desberdintasunak sustatzen dituen hausnartzea: hobekuntzarako lehen urrats gisa, autokritikarako gaitasuna erakustea eta behar bezala eta modu ez-sexistan adierazteko gai izatea.
- Hezkidetzan oinarritutako proposamenak garatzea eta erabiltzea: genero-ikuspegiarekin esku hartzeko proiektuak diseinatzea, kudeatzea eta dinamizatzea, ikasle guztien parte-hartze inklusiborako teknikak aplikatuz.

2.3.2. Ikaskuntza-helburuak

Esan bezala, ikastaroaren helburua irakasleen etengabeko formakuntzarako generoaren inguruko baliabide berria sortzea da, eskolako errealitatean oinarritzen dena eta honen hausnarketa bideratzeko aukera ematen duena. Beraz, ikastaroaren erabiltzaileak, honako ikaskuntza helburuak lortu beharko ditu:

1. Oinarrizko kontzeptuak ulertu eta azaldu: sexua, generoa, sexu-genero sistema, genero-estereotipoak, androzentrismoa, hezkidetzeta, eta abar.
2. Gizon eta emakumeen ezberdintasunak, bereziki genero-estereotipoak, zeren ondorio diren identifikatzea.
3. Euskal Herrian indarrean dagoen generoaren inguruko legediak dioena ezagutu.
4. Mugimendu feministak genero berdintasuna eskuratzeko gizartean zein eskolan egindako borroka ezagutu eta aitortu, marko teoriko bezala.
5. Curriculum ezkutuak ikasleengan duen eraginaz hausnartu.
6. Euskararen erabilera sexista zalantzan jartzen dutenen aurreiritziak eztabaidan jarri.
7. Androzentrismoak euskara hizkuntzan dituen arrastoak identifikatu, horiek baztertzeko behararen premia kontzientzia hartu eta hizkuntza sexista ekiditeko estrategia inklusiboak ezagutu nahiz praktikan jarri.
8. Eskolan hezkidetzan oinarritutako ekintzak eta materialak hautatu edo sortu.
9. Hitzik gabeko komunikazioan sexismoa identifikatu eta horiek saihesteko beste aukera batzuk proposatu.

2.3.3. Edukiak

Ikastaroan zehar lantzen diren edukiak, VII. eranskinean ikus daitezke, gaika sailkatuta.

2.4. Erabiltzaileen profila eta erabiltzeko era

Ikastaroa Lehen Hezkuntzako zein Haur Hezkuntzako irakasleei zuzenduta dago, etengabeko formakuntzaren baliabide gisa. Hala ere, hasierako formakuntzan dauden etorkizuneko irakasleentzat ere balio du. Generoari begira hizkuntzak duen garrantziaz ohartzeko eta hausnartzeko oinarrizko ikastaroa denez, erabiltzaileek ez dute zertan aurretiaz gaiaren inguruko ezagutzarik izan.

Bestalde, plataforma oso intuitiboa da. Erabiltzaileak gai bakoitzeko irakurra landu ostean, gaiari dagokion ataza egin eta plataformara igo beharko du. Horrez gain, nahi izanez gero, foroan ere ekarpena egiteko aukera izango du.

2.5. Zenbait erabiltzailearen balorazioa

Behin proposamena sortuta, lanean dauden irakasle batzuek ikastaroa egin dute. Horretarako, eskola bereko profil ezberdinetako Lehen Hezkuntzako hiru irakaslek parte hartu dute (VIII. eranskina). Azkenik, ikastaroa bukatzerakoan, erabiltzaile bakoitzak horren balorazio eta gomendio idazkia erredaktatu du (IX. eranskina).

Erabiltzaileen balorazioei dagokienez, guztiek generoaren eta hizkuntzaren inguruko ikastaroak egitearen garrantzia azpimarratu dute, beren hitzetan “irakasleak garen heinean, eredu onak eskaini behar dizkiegu ikasleei” (3. erabiltzailea). Gainera, ikastaroan zehar agertzen diren adibide praktikoak positiboki baloratu dituztela azpimarratu behar da. “Benetan klaseratzeko materialak edo adibideak dira gehien balio dutenak eta erabilgarrienak direnak” (2. erabiltzailea). Ziurrenik, horregatik, izan da bigarren gaia baloratuena: “Ikaragarri gustatu zait 2. gaia” (1. erabiltzailea), “Bigarren gaia asko gustatu zait” (3. erabiltzailea). Izan ere, gai horretan eredu txarrak aipatu eta eredu onak ahalbideratzen dira; hau da, guztiz praktikoa da.

Bestalde, zereginei dagokionez, zehaztutako helburua lortu dela uste dut; hau da, irakasleen hausnarketa bultzatzea. Hala adierazi dute ikastaroaren erabiltzaileek, gure irakaskuntza-jardueran norberaren hausnarketak duen garrantzia aitortuz: “Ataza hauek

oso interesgarriak iruditu zaizkit. Hausnarketarako bidea ematen dute, eta hori da gure irakaskuntza jardunean aldaketak egiteko lehen urratsa, hausnarketa sendoak burutzea (1. erabiltzailea).

Azkenik, etorkizunean aplikatzea gustatuko litzaidakeen hobekuntza edo iradokizun batzuk ere aipatu dituzte, hala nola: material praktikoa gehiago ahalbidetzea, teoriarako beste formatu batzuk erabiltzea (bideoak, adibidez), kontzeptu-mapa bat sortzea, etab.

3. Ondorioak eta etorkizunerako ildoak

Lan honen bidez, argi geratzen da genero-diskriminazioak gure bizitzako esparru guztietan gertatzen direla, eremu sozialean, pribatuan, kulturean, lanean, hezkuntzan eta abarretan. Diskriminazio horiek oztopo dira genero maskulinokoak ez diren edo ezarritako genero-estereotipoak betetzen ez dituzten pertsona guztien garapen integralerako. Beraz, sarritan berdintasunezko gizarte batean bizi garela esaten den arren, ezin dugu ahaztu oraindik ere lan dezente dugula berdintasuna lortzeke. Izan ere, biztanleriaren hein handi batek ez du egunero gertatzen diren diskriminazio jakin batzuk identifikatzeko abileziarik, hizkuntza sexistaren erabilpena kasu. Hizkuntza kulturala da eta elementu horiek zalantzan jartzeak hausnarketa sakona eskatzen du aurretiaz, hagitz errotuak baitaude gure izateko eran.

Hori dela medio, ezinbestekoa da genero-diskriminazioaren problematikan sakontzea, eta hezkuntza, horretarako daukagun tresnarik aproposena da; hala diote Cruzek (2004) eta Maceirak (2006), baita ikastaroa egin duten irakasleek haien balorazioetan ere. Dena den, azpimarratzekoa da eskola egungo errealitatearen eraldatzaile izan daitekeela, baldin eta hezkuntza-komunitatea (batez ere irakasleak) genero-arazoak kontzientziaturik badago. Lehenik eta behin, genero-diskriminazio elementuak identifikatzeko gaitasuna izan behar dute, zehazki hautematen zailagoak diren diskriminazioak eta berriaz gogoeta eskatzen dutenak. Bigarrenik, hezkidetzaproposamenak aurre eraman behar dituzte, irakasleak ikasleentzako eredu bihurtuz.

Marko teorikoan aipatzen denez eta irakasleen ebaluazioetan berresten denez, beharrezkoa da ikasgeletan genero-berdintasunari buruzko irakasleen prestakuntza bultzatzea. Hori dela eta, lan honen proposamenean garatu dugun bezala, beharrezkoa da bereziki gure hizkuntza erabiltzeko moduari buruzko prestakuntza eta

kontzientziazioa izatea; zeren, kasu ugarian genero ezberdintasunak horren bidez iraurazten ditugu. Ikastaroko erabiltzaileek adierazi duten moduan, gai honen inguruko ezagutzak oso eskasak dira: “honen inguruko ezagutza oso eskasa ikusten dut, bai irakaslearen artean bai ikaslearen artean” (3. erabiltzailea), “hizkuntza komunikatzeko dugun bide erabiliena da, eta sarritan ez gara konturatzen zeinen sexista izan daitekeen” (1. erabiltzailea).

Hortaz, genero-gaietan trebatutako eta kontzientziatutako irakasleak lortzen baditugu, egunero diskriminazioak edo genero-estereotipoak desagerrarazteko ekintzak sustatzea lortuko dugu. Era berean, ikasgelan ezberdintasun horiek identifikatzeko eta eraldatzeko gai diren profesionalak izango ditugu, generoaren ikuspegitik, ikasgela inklusiboak erdietsiz.

Gradu Amaierako Lan honen proposamen gisa sortutako irakasleentzako online ikastaroaren bidez, hezkuntza-komunitatearentzat baliabide bat jarri da abian, kontzientzia sortzea eta hezkidetzaren baliabideak eskaintzea ardatz duena. Bereziki, hizkuntzaren inguruan lan egiten da, horren kutsu sexista identifikatzea zaila egiten zaigun elementu kulturala baita. Gainera, ikastaroaren bidez irakaslearen artean hausnarketa eta kontzientzia sortzen dela egiaztatu da: “ataza hauek [...] hausnarketarako bidea ematen dute, eta hori da gure irakaskuntza jardunean aldaketak emateko lehen pausoa, hausnarketa sendoa burutzea” (1. erabiltzailea).

Kontzientziazio honek, generoaren araberrako hierarkizazio sozialarekin amaitzen lagunduko du eta ikasle libreen garapen integrala bultzatuko duen hezkuntza sortzea ahalbidetzen du. Hots, online ikastaroak, etorkizuneko belaunaldiek, gaur egungo ikasleak direnak, borroka egitea eta guztiontzako aukera berdina dituen gizarte berdinezaleago bat eskuratzea sustatzen du.

Beraz, etorkizuneko erronka, ikastaroa leku ofizial batean publikatzea lortzea izango litzateke, erabiltzaile gehiagok sarbide aukera izateko. Horretarako, Bilbo aldean dagoen zentro batekin hitz egin da eta prest daude ikastaroa online jartzeko, irakasleei aurkezteko eta egiteko aukera emateko.

4. Erreferentzia bibliografikoak

- Aguilar, T. (2008). El sistema sexo-género en los movimientos feministas. *Amnis: Revue de Civilisation Contemporaine de l'Université de Bretagne Occidentale*, 8. Hemendik eskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2870086>
- Alario, A. eta Anguita, R. (1999). ¿La mitad de la humanidad forma parte de la diversidad? El sexismo en las aulas y la coeducación como alternativa. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 36, 33-43. Hemendik eskuratua: <file:///C:/Users/IKASLEA/Downloads/Dialnet-LaMitadDeLaHumanidadFormaParteDeLaDiversidad-118043.pdf>
- Ali, S. (2003). To be a girl: culture and class in schools. *Gender and Education*, 15 (3), 269-283. Hemendik eskuratua: <https://www.tandfonline.com/doi/abs/10.1080/09540250303859>
- Álvarez, A. (2007). Zergatik erabili behar dugu hizkera ez-sexista? *Hik hasi: euskal heziketarako aldizkaria*, 116, 32-34. Hemendik eskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6964011>
- Apodaka, M. eta Apodaka, E. (d.g.). *UPV/EHU-n Euskararen Eta Irudien Erabilera Ez-sexistarako Gida*. Hemendik eskuratua: https://www.ehu.eus/documents/1734204/1884196/Ez_sexistan_erabiltzeko_gida_EHU.pdf
- Atiaja, L.N. eta García, A. (2020). Los MOOC: Una alternativa para la formación continua. *Revista Cientific*, 5(18), 120-136. Hemendik eskuratua: <https://doi.org/10.29394/Scientific.issn.2542-2987.2020.5.18.6.120-136>
- Ayuste, A.; Rodríguez, M.C.; Salvador, E. eta Valdivielso, S. (2016). Educación y género en la formación docente en un enfoque de equidad y democracia. In I. Carrillo (koor.), *Democracia y educación en la formación docente* (1. ed., 117-140 or.). Bartzelona: Universitat Central de Catalunya.
- Azkarate, M. (1993). Emakumea eta euskara. In J. Arrizabalaga eta A. Carbonell (bil.). *Emakumea: Sexu ala generoa?* (69-78 or.). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, Filosofia Saila.
- Barquín, A. (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Vitoria-Gazteiz: Emakunde. Hemendik eskuratua: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_clau_intro_00/es_def/adjuntos/A132_Euskararenerabileraezsexista.pdf
- Bejarano, M. T., Martínez, I., eta Blanco, M. (2019). Coeducar hoy. Reflexiones desde las pedagogías feministas para la despatriarcalización del currículum. *Tendencias Pedagógicas*, 34, 37-50. Hemendik eskuratua: <https://revistas.uam.es/tendenciaspedagogicas/article/view/tp2019.34.004>
- Butler, J. (2004). *Undoing gender*. Abingdon: Routledge.
- Cruz, M.R. (2004). Hacia la igualdad de las mujeres: De la tradición a la coeducación. *Revista de educación*, 6, 97-109. Hemendik eskuratua: <http://rabida.uhu.es/dspace/bitstream/handle/10272/1939/b15153575.pdf?sequence=1>
- Emakunde. (1988). *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak*. Vitoria-Gazteiz: Emakunde. Hemendik eskuratua: http://alboan.efaber.net/ebooks/0000/1302/12-EMA-LEN_es_.pdf

- Espainiako Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren 1/1990 Lege Organikoa [LOGSE]. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 238, 1990eko urriaren 4koa, 28927tik 28942ra. Hemendik eskuratua: <https://www.boe.es/eli/es/lo/1990/10/03/1/dof/spa/pdf>
- Euskal Estatistikaren Erakundea. (2021). *Euskal AEn emakumeek zaintzen eta etxeko lanen % 67,2 betetzen dituzte* [prentsa-oharra]. Hemendik eskuratua: https://eu.eustat.eus/elementos/euskal-aen-emakumeek-zaintzen-eta-etxeko-lanen-672-betetzen-dituzte-/not0018351_e.html
- Euskaltzaindia. (d.b.). Hezkidetzeta (azpisarrera). In *Euskaltzaindiaren hiztegia*. 2020-10-20an, hemendik eskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=genero&option=com_hiztegi_ambilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu&bila=bai
- Eusko Jaurlaritzak. (2015). *Euskal Ekarpena Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik eskuratua: <https://www.euskadi.eus/garapen-jasangarrirako-2030-agendari/web01-s1leheki/eu/>
- Eusko Jaurlaritzak. (2015). *Heziberri 2020. Hezkuntza.eredu pedagogikoaren markoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik eskuratua: <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-eredu-pedagogikoaren-markoa/web01-a3hbhezi/eu/>
- Eusko Jaurlaritzak. (2016). *Genero-ikuspegia curriculumean eta araubide bereziko eta lanbide heziketako ikasketetako irakaskuntza-jardueretan txertatzeko gidaliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik eskuratua: https://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-catpub/eu/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=051801&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORM_ATO=.pdf
- Gipuzkoako Foru Aldundia. (2011). *Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako jarraibideak*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Argitalpen Zerbitzua. Hemendik eskuratua: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pol_clau_guias_publicaciones/eu_def/adjuntos/GFA_Hizkuntzaren_erabilera_etzsexista.pdf
- Iglesias, A. eta Sánchez, A. (2017). Coeducación: feminismo en acción. *Atlánticas. Revista Internacional de Estudios Feminista*, 2 (1), 1-6. Hemendik eskuratua: <https://revistas.udc.es/index.php/ATL/article/view/arief.2017.2.1.2115>
- Juanena, A. (1991). Hizkuntz sexismoa eta euskara. *Jakin*, 65, 97-110. Hemendik eskuratua: <https://www.jakin.eus/show/e811915964a32de3618523331f87587407df0498>
- Juca, F.X. (2016). La educación a distancia, una necesidad para la formación de los profesionales. *Revista Universidad y Sociedad*, 8 (1), 106-111. Hemendik eskuratua: <https://rus.ucf.edu.cu/index.php/rus/issue/view/25>
- Maceira, L.M. (2006). Más allá de la coeducación: Pedagogía feminista. *Educar, Revista de educación*, 36, 27-36. Hemendik eskuratua: http://www.patrimoniocultural.gob.cl/dinamicas/DocAdjunto_1423.pdf#page=27
- Matilla, A.M. (2017). Identidades invisibilizadas. Los géneros no binarios en Trabajo Social. *ReiDoCrea: Revista electrónica de investigación y docencia creativa*, 6, 54-63. Hemendik eskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7200790>

- Ortega, D. eta Pagès, J. (2018). Género y formación del profesorado: análisis de las guías docentes del área de didáctica de las ciencias sociales. *Contextos Educativos. Revista de Educación*, 21, 53-66. Hemendik eskuratua: <https://publicaciones.unirioja.es/ojs/index.php/contextos/article/view/3315/3025>
- Ortiz, G.; Valencia, J.F. eta Gil de Montes, L. (2006). Hizkuntzaren erabilera genero-estereotipoak iraunarazteko tresna gisa: hizkuntzaren abstrakzioaren ondorioak. *Uztaro*, 59, 63-88. Hemendik eskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2206365>
- Rodríguez, M.C. eta Peña, J.V. (2005). La investigación sobre el género en la escuela: nuevas perspectivas teóricas. *Teoría de la Educación. Revista interuniversitaria*, 17, 25-48. Hemendik eskuratua: <https://revistas.usal.es//index.php/1130-3743/article/view/3105>
- STEILAS. (2015). *Genero eta aniztasun sexualerako gidaliburua*. Bilbo: Steilas. Hemendik eskuratua: <https://steilas.eus/files/2015/05/Genero-eta-aniztasun-sexualerako-GIDA.-STEILAS.2015.pdf>
- Vezub, L.F. (2013). Hacia una pedagogía del desarrollo profesional docente. Modelos de formación continua y necesidades formativas de los profesores. *Páginas de educación*, 6 (1), 97-124. Hemendik eskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6761573>
- Ugarte, B.; Otaduy, M.L. eta Irigoyen, M.J. (2020). *Irakurgaia, hezkidetzaren alde busti!: Betaurrekoen garrantzia*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Berrikuntzen, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza eta Berdintasunerako Zuzendaritza